



Etxalar herri euskalduna dugu, herritarren gehiengoa euskalduna baita. Hori dela eta, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide egin gara, euskararen normalizazioa baitugu helburu. Hala, UEMAren eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen bidez, euskararen normalizazioaren alorrean lan handia egiten ari gara.

Besteak beste, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartua dugu eta horretan ere lanean ari gara. Plan hori hizkuntz irizpide batzuetan oinarritzen da. Irizpide horietan udal instalazioak erabiltzeko baldintzak daude eta zuei ere badagokizue horien berri jakitea. Beraz, hona hemen:

UDAL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

- Udal instalazioetan egin beharreko ekitaldien hizkuntzan (idatziz zein ahoz) eta horietan erabiliko diren materialetan euskararen erabilera bermatu beharko du.
 - Ekitaldia iragartzeko egin beharrekoetan, bestelako hizkuntzen gaineratik, euskarak bere lekua izango duela bermatu beharko du

